

Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioak Hedatuz - Euskal kultura eta zientziaren liburutegi digitala sortu du

Hedatuz.euskomedia.org helbidean euskal kultura eta zientziaren inguruko 5.000 artikulua baino gehiago aurki daitezke.

Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioak Hedatuz- Euskal kultura eta zientziaren liburutegi digitala sortu du. Hedatuzek internauten eskura jartzen ditu Eusko Ikaskuntzak 1918. urtetik argitaratutako aldizkari, monografia eta obra espezializatuak, baita 1907tik argitaratutako Revista Internacional de Estudios Vascos aldizkaria ere. Diziplina desberdinetako 5.000 artikulua baino gehiago sareratzea suposatzen du horrek, baina Historia, Antropologia eta Artea nagusitzen dira, baita Zientzia Politiko, Soziologia eta Linguistika ere.

Edukiak Eusko Ikaskuntzako fondokoak bakarrik badira ere, Hedatuz, baliabide digital zein euskal kultura eta zientziarekin harremana duten material bibliografikoen ikusgarritasun, zabalkunde eta inpaktua handitzeko helburuarekin bat datozen erakundeei irekita dago.